

HITZ BITAN

EUSKARA. Otsaileko edo martxoko bilkuran onartuko dute planaren zati bat

Gasteizko Udalak hilaren 27an bozkatuko du Euskararen Normalizaziorako Plana

Ainhoa Gutierrez | GASTEIZ

Otsaileko edo martxoko bilkuran onartuko da Gasteizko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Hilaren 27an, aldiz, plana bozkatuko dute. Hala adierazi zuen Udaleko alkateorde Miguel Angel Etxebarriak atzo, Udaleko Lehendakaritza Batzordean.

Udaleko alderdi politikoen,

hilaren 22a arte izango dute zuzenketak aurkezteko aukera. Sindikatuen ordezkariak, berriaz, hilaren 24an aurkeztu ahal izango dituzte zuzenketak, Udaleko Lehendakaritza Batzordean.

Bestalde, Udaleko alkateorde Etxebarriak adierazi zuenez, hilaren 27an zuzenketa horiek eztabaidatuko dira, eta, Euskararen Erabilera Normalizatzeko

Plana bozkatuko dute. Hori guztia egin ondotik, txostena Eusko Jaurlaritzara bidaliko dute.

Maiatzaren 13an onartu zen euskararen normalizaziorako lan taldea, Udaleko Lehendakaritza Batzordean. Lan taldearen helburuak bi dira: Gasteizen euskararen normalizazioa sustatzea eta, horrekin batera, Udaleko eremuan ere euskara bultzatzea. Izan ere, Udalean lanean ari diren funtzionarioen %23,9 soilik dira elebidunak.

Oraingoz, udaletxe eremuan euskara bultzatzeko planarekin dihardu Udalak.

GENERO INDARKERIA

Gizon bat atxilotu dute bikotekide ohiari jaurtigairik gabeko armarekin mehatxu egiteagatik

Ertzaintzak 42 urteko gizonezko donostiar bat atxilotu zuen atzo, Astigarragan (Gipuzkoa), bikotekide ohiari eta kalean zihoan beste bikote bati jaurtigairik gabeko arma batekin mehatxu egitea leporatuta. Lehenik bikotekide ohiari egin zion mehatxu, Oiartzungo bere etxean. Handik Astigarragara joan zen, eta bikote bati egin zion mehatxu arma berarekin. Bizilagun batzuen artean hura geldiaraztea lortu zuten, ondoren Ertzaintzara deitzeko. Ertzaintzak atxilotu egin zuen, eta ondoren jakin zuen aurretik bikotekide ohiari jipoitu eta arma lepoan jarrita mehatxu egin ziola. Atxilotuak aurrekari polizialak ditu eta gaur eramango dute epailearen aurrean deklaratzera.

GIZARTE ZERBITZUAK

Bizkaiko Foru Aldundiak 3.500 adineko eta ezindu artatzeko 57 zentro berri jarri nahi ditu abian

Bizkaiko Foru Aldundiak 57 harrera zentro jarri nahi ditu abian, horietan 3.500 lagun artatu ahal izateko. Josu Bergara diputatu nagusiak atzo adierazi zuenez, zentro horietan 2.000 laguni emango zaie lana, eta 180 milioi euroko inbertsioa eskatuko du. Hala, egun osoz irekitzeko 27 harrera etxe egingo dira. Horieta-ko 15 zentro zaharrentzat izango dira, eta 1.800 pertsonentzako lekua izango dute; beste 12 zentroak ezinduentzat izango dira, eta 315 leku izango dituzte. Bestalde, eguneko 30 zentro ere jarriko dituzte abian. Bergarak azaldu zuenez, legegintzaldi hasieratik ari dira lanean, gizarte gaietarako arloan «bultzada handi bat emateko».

ERREPIDEAK

Etxegarate itxiko dute ordu erdiz, leherketa bat egiteko

Etxegarateko N-1a bikoizteko laneak direla-eta, leherketa bat eragingo dute gaur, eta horrek errepidea ordu erdiz ixtea eskatuko du. Leherketa arratsaldeko 16:15ean egingo da, eta errepidea bi norabideetan itxiko dute. Aste honetan beste leherketa bat ere egin beharko dute.

EZBEHARRA

Zauririk gabe atera da Goizuetan baserria erre zaion gizona

Atzo goizaldeko 05:00etan Goizuetako (Nafarroa) Kaleko-Borda baserria erabat kiskali zuen sutea gertatu zen. Bertan bizi zen gizona, ordea, zauririk gabe atera zen; eta ukuiluan zituen bost behiak eta lau txekorrak ere onik ateratzea lortu zuen. Hala ere, ez berak, ez suhiltzaileek, ezin izan zuten ezer egin baserriarengatik; Kaleko-Borda baserria guztiz suntsitu zen.



GORKA ALESTARAN / EFE

Biluzik animalien alde

Animaliak larruzko jantziak egiteko erabiltzearen kontra kontzentrazioa egin zuten herenegun, Gasteizen, hainbat lagunek. Kontzentrazioan ez zuen jende askok parte hartu, baina asko izan ziren haiei begira gelditu zirenak; izan ere, pankarta eutsi zuten lau gazteak biluztu egin ziren, eta horrela egon ziren hainbat minutuz. Zero grado termometroetan, eta *Nahiago biluzik, larruekin jantzi baino* zioen pankarta estalki gisa. «Jendeak kontzientzia hartzea nahi dugu», esan zuen Animaliak Askatzeko Alternatiba taldeko kide batek.

EHIZA

Frantziako Ingurumen ministroak urtarrilearen 31rako finkatu du hegazti migatzaileen ehizaren bukaera

Oraindik Estatuko Agiri ofizialetan iragarri ez badu ere, Frantziako Ingurumen ministroak urtarrilaren 31 finkatu du hegazti migatzaileen ehizaldiari bukaera emateko. Erabaki honetan espezie gehienak sartzen dira, nahiz eta salbuespenak izango diren hiru kasutan. Xehetasunak Estatu Agiri Ofizialean agertuko dira egunotan. Erabakiak talde ekologisten eta ehiztari taldeen arteko eztabaidei bukaera eman nahi die, baina azken hauek ez dute iritzirik eman, behin betiko erabakia plazaratu arte.



Bihar

UNI

Egunkaria

Azterketei desafio
Deustuko zinekluba aztergai
24 ordu, 365 egun Ibaetan
Informatika: Safari arakatzalea

...zure independentzia

